

Unai Elorriaga

Orain egun batzuk iritzi bat irakurtzen nion Anjel Lertxundiri: “Euskal literaturak ezin du homologazioa Espainian bilatu”. Eta arrazoia du neurri handi batean, literaturaren eginkizuna bere sistemaren barnean kokatzen baita, bere hizkuntzaren tradizioan eta aurreko idazleekiko osatzen den katean. Hortxe bizi da lan literarioa eta hortxe aurkitzen du hizkuntzan kide direnen onespina edo galera. Gainera, tradizioaz gain, beste era bateko haizeak ere bizi du literatura, kanpoko eraginak, eta ez derrigorrez Espainiakoak, gaurkotasunaz egiten den hausnarketak, idazlearen poetikak... Horregatik, agian, goian aipaturiko esaldiaren ondoren beste hau gehitzen zuen idazleak: “Homologazioaz hitz egiten dugunean, literaturaren homologazioaz hitz egin behar dugu”.

Baina Unai Elorriagaren kasua desberdina izan da. Kanpoan homologatu diguten idazlea baita. Espainian, Sari Nazionala irabazi zuen momentutik aurrera. Ez dut esango Euskal Herrian ezaguna izan ez denik, eta euskal literaturan bere tokitxo eginga ez zuenik. Baina neurri batean idazle periferikoa genuen euskal literaturaren sistemaren barnean: gaztea, lehen liburua, Bizkaikoa, Bizkaiak aspaldi galdu duenean euskal sistemaren eta nagusientzako literaturaren eremuan gune izateko joera (gogoan hartu Atxagaren hitza: “pozten naiz Bizkaiko esparruagatik”). Bai esparru bat gara. Eta esparru horretan hazitako Unai Elorriagarekin jarraitzearen, muga puntu hori beste zenbaitetan ere agertzen da: Euskadi Sarian finalista ez izana, aurkezturiko sarietan saririk jaso ez izana... Inoiz entzun diot Unai Elorriagari saria jaso aurretiko kritikak epelak izan zirela, liburuak iritzi ezkorrak jaso zituela. Haiek aldizkarietan aurkitzen saiatu naiz, baina ez dut horrelakorik aurkitu. Ahoz-aho ibilitakoak dira, nonbait.

Homologazioa literaturan, horixe da helburua. Eta gurean eta auzokoan lortu edo ez lortu, Unai Elorriagak badu gogoan literatura egiteko forma bat, kontagintza osatzeko nabarmena den eskuera bat.

Lan literario honen azpian abangoardiak kontatzeko zuen eraren aldeko miresmena dago. Maiz eta ugari aipatu izan dira Julio Cortázar eta Juan Rulfo bere idazle maitatu gisa. Elorriagaren kontagintzak ilusioa maite du, ez horrenbeste narrazioaren haria, baizik eta kontatzeko orduan egin ditzakeen estilo joko eta unibertso munduak.

*SPrako tranbia*z ari zela bateren bati entzun diot: “hau ez da nobela bat”. Eta, agian, ez da nobela arrunta, hasiera, korapiloa, bukaera hirukoitza santua jarraituz osaturiko lana, ez da horrelakoa, pertsonaiek ere ez dute pisu psikologiko handirik, eta, askotan aipatu denez, gazteak protagonisten etxean sartzeko duen era ere esplika ezina da, eta beraz, neurri handi batean, ulertezina. Eta nobela modernoa azaltzen duen eta bere oinarria den konfliktuak hitz egiten badugu ez dugu horrelakorik aurkituko.

Eta hala ere nobela bat dugu *SPrako tranbia*. Abangoardiakoa, errealisismoaren zenbait arauri muzin egiten dioena. Beste kontu bat da nola baloratzen den hori. Eta hor bai denetarik entzun dela.

Nobela argitaratu ondoren agertu diren kritiketan nagusitzen dena beste hau da: erabiltzen diren zenbait espresa bide ezagunak zirela prosa esperimentalean; esaldiak mozteko era, esaldiak ez amaitzeko joera, diskurtsoa eratze forma... Baina konfliktuak azaltzen duen nobela baino gehiago erreferentzia eta sinbolo sare bat osatzen duen lana dugu hau. Sarea eta zatia, kontzeptu berezi bi idazkera honen bidean.

Sarea: mundu sinboliko bat argumentuaren sotiltasunean. Zerbait gertatzen ote da nobela honetan? Bada oso gutxi: lau pertsonak elkar topatzen dutela eta elkar bizitza hasten dutela. Badago, bai, metaliteraturaz hausnarketa bat, eta ipuinak nola idazten diren azaltzen da nobelan zehar, eta ahotsek ikaragarritzko gorputza hartzen dute. Baina sareak horretan dirau, sinboloa maitez, eta esanahiak zabalduz eta aberastuz: pertsonaien izenak Ebanjeliokoak dira, eta pertsonaien ontasuna naturala da erlazioan nagusitzen dena. Denak dira onak, denek errespetatzen dute hurkoa. Intentzio oneko mundu bat zabaltzen du Elorriagak, eta harekin batera era berean, nostalgiaren mundua eta utopiarena, denboran atzerantz begira lehena, etorkizunerantz bigarrena. Mundu propio bat, berea, idazleak maite duena. Pedro García Carori eskainitako elkarriketa batean (eta bide batez, nobela honetaz eta idaztankera honetaz nik ikusi dudana elkarriketarik osoenean) idazleak hainbat pasarte, sinesgaitzenak ere, “errealitatean” (edo “gertatutakoan” behintzat) oinarriturik daudela aitortzen du. Gauzak gertatu egin ziren (Algotako tranbia bezala, osaba-izekok ohean izandako elkarriketa bezala), eta, beraz, egiazkoak dira. Baina literaturan egiazkoak eta egiantzekoak desberdinak dira, eta egiazkoak izan arren, batzuetan (eta nobela honetan maiz gertatzen da hori) ez dira egiantzekoak. Baina, idazleari, eta narratzaileari berdin dio, kontatzeko era bat du eta kontatu egiten du.

Pedro García Caroren elkarriketa horretan, Unai Elorriagak bere kontaktuz gogoaren sorrera azaltzen du. Emakume edadetuez inguraturik izanik, berak umetan ipuinak entzun eta entzun egiten zituen. Entzundakoaren berri eman nahi du testuak, horregatik tartekatzen dira ipuinak, horregatik idazten dute, zatika, han eta hemen barreiaturik, pertsonaiek, ahots korua egin arte, bakoitzak berea, eta narratzaileak denena, azaldu arte. Entzundakoaren grazia da liburuak batu eta lotu nahi duena: dena da ebanjeliokoa, esan nahi da ebanjelikoa, pertsona onak dira denak, eta ez dago kalterik, ez asmo txarrik

haien artean. O.N.G.aren garaiko nobela bat dela idatzi dut nonbait, eta hala dela dirudi. Asmo onak dena estaltzen du.

Lukas litzateke pertsonaia nagusia. Harengan dira nagusi nobelaren indar sendo biak: nostalgia eta utopia. Nostalgia du, zeren bere emazteak hartzen zuen aspaldian desagerturiko tranbian jartzen baitu bere oroimena, eta lagun hilak –hitz egiten duenak, edo gutxienez, idatzi– du nobelan pisu berezia iragana aipatuz, eta gaurkotasunera ekarriz. Iragan denborek nostalgiaren tapiza ehuntzen dute. Baina Lukas ez dago oraindik hila, eta heriotzaren aurkako borrokan mantentzen du oraindik utopia nahia. Eta gero badago nobelan joera frantziskotar bat: moztarroak ere –eta moztarroak idazlearen munduan, Kafkarenean bezala, eta hor da agrimensorea bere bigarren nobelan, oso garrantzizkoak dira, eta munduko izaki guztien arteko elkarriketa adierazten dute.

Bestelakoa da Mariaren joera: idazkera sinbolizatzen du honek. Idazkera beharrezkoa, debekatua izan arren. Mariak eta Lukasek mundu propioa dute, eta bizi dute, eta ondoren, gaueko sailetan, ari buruz ari dira, idatzi beharra bizi behararren ispilua balitz bezala. Mundu oso bat dago azaltzeko, esateko, idazteko, baina mundu hori adierazi behar da, eta adierazpenak eta munduak badute, Unai Elorriagaren ustetan, loturarik. Postmodernitatearen garai hauek zalantzan jarri da errealitatea adierazteko hizkuntzak eduki dezakeen ahalmena, errealitatearen eta hizkuntzaren artean zubiak hautsiak balira bezala, eta hitzak ezer balio ez balu bezala. Galdera garrantzizkoa da. Zenbat ahal lezake hizkuntzak errealitatea adierazteko momentuan?

Galderari erantzuteko bide bi daude: mesfidantzarena, eta ziurtasunarena. Ramon Saizarbitoriaren nobeletan, adibidez, narratzaileak badaki berak kontatzen duenak ez duela errealitatea islatzen, eta beraz, zalantzaren bidean kokatzen du bere burua idazleak. Elorriagak, ordea, ez du mesfidantzarik eragiten: hitzak errealitatea adierazten du eta gainera, beste mundu berri batzuk zabaltu, nostalgiaren mundua, utopiaren mundua. Eta bizitzak ematen ez duena ematen du, Mariaren kasuan, adibidez.

Sarea ez da soilik nostalgiaren bilbean korapilatzen. Utopia adierazpen handia dago liburuan: Shisha Pangma mendira igotzea, edo, bestela eginez, hara igotzea posible balitz bezala bizitzea, ilusioak galdu gabe, utopiaren indarra ahuldu gabe, hori posible dela sinestuz eta jokatzuz. Mendira joatearen metaforaren paraleloak dira liburuan behin eta berriro aipatzen diren telebistako kirolen berriak. Telebistako gizon gisa aurkeztu du bere burua idazleak, bide batez, zinematik eragin urriagoa egin diola aipatzen duelarik... Mendira igo, edo kirolariaren ilusioa mantendu. Utopian sinestu.

Abangoardian oinarrituriko forma da nobelak mantentzen duena, eta forma horren azpian zatiaren nagusitasuna dago. Pertsonaiak osatzeko eta giroak bermatzeko orduan intuizioz jokatzeko du idazleak, asko isilduz, asko iradokiz, irakurlearen asmamen ahalmenari ateak zabaltuz. Agian tonu horren sorreran dago Unai Elorriagaren lanaren baliorik nagusia, gauzak kontatzeko duen jarrera nabarmen horretan.

Zerbait kontatu behar duenean, ez du narrazioaren logikak agintzen, ez du munduaren ikuskerak agintzen, idazlearen askatasun senak bultzatzen du bere eskua, eta intuizio-joko horretan, badirudi kontatzeko eta idazteko gozamenak gidatzen duela luma. Ez du ardurarik logika apurtzeak, pertsonaiak psikologikoki ez luzatzeak, deskripzioaren soberak edo faltak, idazleak nahi duena egiten du, eta esaldi bat amaitu gabe utzi behar bada, horrela geratuko da.

Joera horretan argumentua arina da, zatika emana da, iradokorra nahi delako. Ahots narratiboan ugalketa, pertsonaien izaera arina, eta joskera aske hori istorioak kontatzeko aukeratu dira, alde bereziak bilatzen direlarik kontakizunean (Lukas eta zomorroak, adibidez), tonu berezi hori azaldu arte beintzat.

Abangoardiako tradizioan bide zabala egin dute espresa molde narratibo hauek, baina Elorriagak gurera ekarri ditu, bere ahotsean bizi berritzeko asmoz.

* * *

Garbi dago Espainiako Narratiba Sari Nazionala ez dela urtero lortzen euskal literaturan, eta Bernardo Atxagaren eta Unai Elorriagaren artean urteak pasatu dira. Oso lan desberdinei eta traiektoria desberdineko idazleei eman zaie. Unai Elorriagak saria irabazi zuenean, poza hartu nuen. Baina pozaren ostean hausnarketa txiki bat egin behar izan nuen, zer ote zen eta zer esan nahi zuen sari hark gure letren mundutxoan niri buruari argitu nahiez.

Ana Toledok, euskal nobelagintzaren arloan ikerlari ospetsu bezain eza-gunak, *SPrako tranbia* nobelaren azterketa aurkeztzen du. Kontuan hartu behar da gainera, Ana Toledo saria erabaki zuen mahaiaren partaide izan zela, eta beraz, interesgarria egiten da bere iritzia ezagutzea.

Sariaren berria zabaldu zen garaietan eskolak ematen nituen polisistemen teoriak, eta nire ikasleei proposatu nien sariak prentsan izandako oihartzuna aztertzea berebiziko interesekoa zela, batez ere gezurretan oinarrituriko iritziak agertu zirelako, eta prentsan eta inguru mediatikoetan eztabaida antzu bat zabaldu zelako. Koldo Alijostesek egin zuen azterketa hori, eta laneko ondorioak jakingarriak izanik aparte estonagarriak ere badira, euskal prentsaren jarrera ere eskasa izan delako zenbaitzuen kasuan. Sariaren ostean izandako oihartzuna ongi aztertua bagenuen, ez zen gaizki etorri azterketa konparatiboa egitea prentsak berak saria irabazi aurretik Unai Elorriagaren nobelari egin zion kasua aztertuz gero. Lan hori hartu zuen bere gain Alaitz Alegriak eta irakurleak aurkituko duen egoera bien ateko kontrastea nabarmena da.

Polisistemen teoriak eta harrera teoriak garrantzia handia ematen diote testuaren inguruan gertatzen denari, baina ahaztuxeago uzten dute testua

bera. Eta ez da dudarik, eztabaida guztien gainetik eta iritzi guztien gainetik testua dagoela. Eta *Sprako tranbiari* buruz hiru lan aurkeztu nahi ditugu gure orrialde hauetan: Unai Elorriagak nobela argitaratu aurretik ezagutzera eman dituen ipuinen azterketa prestatu zuten Andere Olaetak eta Ainhoa Rabanalek, ipuinen eta nobelaren artean zubiak eta antzekotasunak utzi zituzten agerian.

Lana pentsatu genuenetik ageri den arte, urteak pasatu dira, eta artean Unai Elorriagak *Sprako tranbia* lanaren itzulpena egin eta Espainian zabaldu da haren lana. Carmen Isasik eta bere taldeak lan handia egin dute analisi berrien metodologiaren bidez Unai Elorriagaren originalaren eta itzulpenaren artean diren estrategia desberdinak azaltzen.

Gure liburua bukatzeko egilearen iritzia bete dugu egindako lanari buruz, liburuari ikaragarritzko interesa gehituz eta zabalduz.

Liburu hau omenaldi xumea besterik ez da, lan bilduma zehatza, jakin dakigula idazle batek duen omenaldirik handiena bere lanaren irakurketa dela, eta horretan saiatu gara honetan parte hartu dugun guztiok.

Jon Kortazar

